



## **LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIAN JARDUNGO DUTEN EUSKARA IRAKASLEEN LAN-POLTSA OSATZEKO**

### **Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.**

Deialdi honen helburua Santurtziko Udala Euskaltegiko euskara-irakasleen lan-poltsa sortzea da. Lan-poltsa honen bidez, alde batetik, ikasleen eskariari erantzuteko euskarazko ikastaroak emango dituzten irakasleak kontratatuko dira, eta beste alde batetik, gaur eguneko irakasle titularren ordezkotako gisa jarduteko irakasleak, lanerako aldi-baterako bajaran egoteagatik edo beste arrazoiren batengatik irakasle titularrak lanera etortzerik ez duenean.

Hautaketa-prozesua lehiaketaren bidez izango da.

Hautaketa-prozesua gainditzen duten hautagaien zerrenda hiru ikasturtez erabili ahal izango da.

Lan-poltsan honek lehenetsuneko izaera izango du aurretik onartutako deialdi edo lan-poltsetan sortutako hautagaien zerrendekiko.

### **Bigarrena.- Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak**

Hautaketa prozesuan onartua izan eta parte hartzeko hautagaiek hurrengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.
- b) Hamasei urte beteta izatea, eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehienezko adina gainditu gabe izatea.
- c) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- d) Diziplina-espeditatearen bidez, inongo herri-administrazioetako zerbitzuetik bereizita ez egotea edo eginkizun publikoak egiteko ezgaiturik ez egotea, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 56.1.d) artikulua terminoetan.
- e) Unibertsitate-gradu, lizentziatura edo diplomaturaren jabe izatea, edo HABEk egindako homologazio-frogak gainditu dituelako agiria edukitzea (1984ko ekainaren 22ko ebazpidea); edo beroriek lortzeko bidean egotea, tituluak emateko eskubideak ordainduta izanik eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.
- f) 4. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea egiaztatua izatea.

Hautagaiak oinarri hauetan ezarritako baldintzak izan beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta erabili ahal izango dituzte hautaketa-prozesuak dirauen bitartean eta kontratua sinatzen den unera arte.



## Hirugarrena.- Eskariak

Lehiaketan onartua izateko egiten diren eskariak Autonomiadun Erakundearen presidenteari zuzenduko zaizkio, eta horiek hurrengo baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Hautagaiak Oinarrietan eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute.
- b) Lehiaketa fasean baloratu beharreko merituei dagozkien datuek egokiro egiaztatuak izan beharko dute. Ez da baloratuko aurkezteko epean egiaztatzen ez den meriturik.
- c) Hautagaiak hurrengo datu hauek eman beharko dituzte:
  - Izen-abizenak.
  - Jakinarazpenetarako erabiliko den helbide edo tokia.
  - Telefono-zenbakia (ahal dela, sakelakoa) eta helbide elektronikoa premiazko jakinarazpenetarako.
  - Hautagaiak eskaerari Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia erantsi beharko diote.

Eskariak, behin egokiro bete ondoren, Udal Euskaltegiaren egoitzako idazkaritzan aurkeztu behar dira, hamar laneguneko epean, eta epe horri hasiera emango zaio iragarkia prentsan argitaratu ondorengo egunean.

Eskariak Herri-administrazioen erregistroetan ere aurkez daitezke, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunaren 30/1992 Legeak, 38.4 artikuluan, erabakitzen duen bezala.

Honako deialdian parte hartzeak eskabidean bildutako datu pertsonalak erabiltzea baimentzea dakar, hurrengo hauek hain zuzen: izen-abizenak, NAN eta prestakuntza maila; horiek buletinean, iragarki-oholean, webgunean eta, orokorrean, hautaketa-prozesuaren emaitza partzial edo behin betikoak jakinarazteko bitartekoetan argitara daitezten, bai eta IVAPek edo eskumena duten erakundeek euskararen edo beste hizkuntza baten ezagutza maila egiazta dezaten ere. Eta, orokorrean, epai-mahaiak edo honek izendatzen duen bestelako erakunde edo enpresa batek hautaketa-prozesua zuzen egiteko beharrezkoak diren datuak erabiltzeko aukera izango du.

Publizitatearen printzipioak arautuko du hautaketa prozesua, eta beraz ez da eskabidea onartuko baldin eta hautagaiak ez badu bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako lagatzeko baimenik ematen.

Hautaketa prozesuaren ondorioz, lan-poltsak egiteko xedez, hautagaiak aipatutako prozesuetan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dute onartzen duten Herri Administrazioaren beste erakunde batzuei zenbait datu lagatzea (pertsonalak,



akademikoak zein lanarekin lotutako xehetasunak), enplegu eskaintzak egin ditzaten legez ezarritako terminoetan.

### **Laugarrena. – Hautagaiak onartzea.**

Eskariak aurkezteko epea amaitutakoan, Autonomiadun Erakundearen presidentek onartutako eta kanpo utzitako hautagaien behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratuko du Santurtziko Udal Euskaltegi iragarki taulan eta [www.santurtzieus.com](http://www.santurtzieus.com) webgunean, informaziorako baino ez, 7 egun baliodunen epean.

Aipatutako zerrendan, kanpo utzitakoen artean agertzen den hautagaiak 10 laneguneko epea izango du, iragarki taulan argitaratu ondorengo biharamunetik hasita, bazter uztea eragin duten akats edo omisioak zuzentzeko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda, automatikoki, behin betikoa dela ulertuko da. Erreklamaziorik egongo balitz, horiek onetsiak edo ezetsiak izango dira, ebazpen berri baten bidez, bost eguneko epe barruan.

Onarpenak ez du bermatzen hautagaia ez dela baztertuko prozesua izapidetzen den artean edo izendatzeko eskaintzak izapidetzen diren bitartean; baldin eta, datuak edo aurkeztutako agiriak egiaztatzean, ikusten bada ez dituela betetzen hautaketa-prozesuan onartua izateko eta parte hartzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak. Kasu horretan, epaimahaiak edo Euskaltegi Zuzendariak baztertzeko proposamena aurkeztuko dute, Presidenteak, interesdunari entzunaldia egin ostean, erabaki egokia eman dezan.

### **Bostgarrena.- Epaimahaia.**

Epaimahaiaren kideen izendapena Presidentearen dekretuaren bidez egingo da, bai eta epaimahaia osatzeko tokia, eguna eta orduaren berri eman ere. Adierazitakoa Santurtziko Euskaltegi iragarki taulan eta [www.santurtzieus.com](http://www.santurtzieus.com) webgunean, informaziorako baino ez, argitaratuko da.

Epaimahaia hurrengo arau hauen arabera osatuko da:

a) Epaimahaia kide anitzekoa izango da eta hurrengo hauek osatuko dute: Epaimahaiburu bat (1), hiru (3) Bokal eta Idazkari bat (1), zeinek ahotsa izango duen baina ez botoa emateko eskubiderik.

b) Epaimahaiaren izendapena inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioei lotuta egingo da eta ahalegin guztia egingo da berau parekidea izan dadin, hau da, gizon zein emakume kopuru beraz osatua. Boto eskubidea duten kide erdiek gutxienez



eskatutako ezagutzen arloari dagokion titulazioa eduki beharko dute eta kide guztiek maila akademiko bera edo altuagoa.

c) Epaimahaian dauden kideak euren izenean egongo dira, eta ezin izango dute inola ere beste inoren izenean jardun.

Administrazio-prozedura erkidearen araudian azaldutako egoeraren bat gertatzen bada, epaimahaikideek ez dute ezer egingo, baina izendatu dituen organo eskudunari horren berri emango diote, eta hautagaiek errekusatzea eskatu ahal izango dute.

Epaimahaiak behar bezala jardun dezan ezinbestekoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria, edo beraien ordezkioak, eta gutxienez bokal erdiak egotea. Erabakiak epaimahaiaren kide gehienek aldeko botoaren bidez hartuko dira; eta berdinketa badago, epaimahaiburuaren kalitatezko botoaren bidez erabakiko da. Epaimahaiak jarduteko prozedura, oinarri hauetan zehazten ez den guztirako, azaroaren 26ko 92/30 Legearen II. Tituluaren II. Kapituluaren xedatutakoari lotuko zaio.

Epaimahaiak ebaluatuko ditu hautaketa-sistemaren merituenak, eta autonomia funtzional osoa izateaz gain, prozeduraren objektibotasunaren erantzulea izango da, deialdiaren oinarriak beteko direla bermatuz.

Ezari beharreko araudi edo oinarrietan zehazten ez den guztian, epaimahai kalifikatzailea izango da gai den organo bakarra deialdiaren Oinarrien interpretazioaren inguruan azaltzen diren zalantza eta galdera guztiei konponbidea emateko, bai eta hautaketa prozesua behar bezala burutu dadin beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ere.

Interesatu guztiek izango dute epaimahaiaren erabakiak aurkaratzeko aukera, administrazio-prozedura erkidearen araudian adierazitako forma eta epeen barruan.

### **Seigarren.- Lehiaketa fasea**

Epaimahaiak hurrengo merituenak baloratuko ditu, baldin eta eskariak aurkezteko epe barruan alegatuak izan badira, eta Oinarri hauetan xedatutakoaren arabera egokiro egiaztatutakoak izan badira.

1.- Irakaskuntzako esperientzia. Gehienez 12 puntu.

Euskaltegiko irakasle gisa emandako 330 orduko puntu 1. Hortik gorako orduak proportzionalki kontatuko dira. Alderdi hori HABE erakundeak egiaztatu beharko du.

2.- Prestakuntza. Gehienez 4 puntu.

- 2 puntu Gradua edo lizentziatura Euskal Filologia, Pedagogia edota Psikopedagogia alorrean; Irakasletzan gradua edo diplomatura Euskal Filologia alorrean; Euskal



Ikasketak Gradua eta Itzulpengintza eta interpretazio gradua, A hizkuntza euskara denean.

- 1 puntu: Magisteritza, Euskal Filologia ez besteetan, Itzulpengintza eta interpretazio gradua A hizkuntza euskara ez denean.

-0,20 puntu euskararen irakaskuntzari edo pedagogiari buruzko ikastaroetan egindako 20 orduko multzo bakoitzagatik (Gehienezko puntuazioa puntu 1)

3.- Beste batzuk. Gehienezko puntuazioa, puntu 1.

- 0,2 puntu 10 orrialdeko glotodidaktika eta euskalduntze alfabetatze gaiari buruzko argitalpenengatik.

### **Zazpigarrena. Sailkapena eta merezimenduen balorazioa.**

Merituei buruzko kalifikazioa amaituta, Epaimahaiak lan-poltsa argitaratuko du Santurtziko Udal Euskaltegi iragarki-taulan eta [www.santurtzieus.com](http://www.santurtzieus.com) webgunean, informaziorako baino ez.

Aurkeztutako merituen balorazioan lortutako puntu guztiek emango dute sailkapenaren hurrenkera, eta balizko berdinketa euskaltegiako irakasle lanetan eskola orduetan kopururik handiena egiaztatu duen hautagaiaren alde erabakiko da; berdinketak segituko balu, eskarmentua eta arduraren bat eduki izana hartuko lirateke kontuan.

### **Zortzigarrena.- Zerbitzuak eskaintzea.**

Hautatutako hautagaiei lan-zerbitzuak eskaintzeko deitzen zaienean, Santurtziko Udal Euskaltegiak aurkeztutako baldintzak edo inguruabar pertsonalak egiaztatu ditzatela eskatu ahal izango die.

Zerbitzuen eskaintza hautagaien puntuazio-hurrenkerari zorrotz jarraituz egingo da hurrengo irizpide hauen arabera:

- a) Egin beharreko kontratu bakoitzeko, zerrendako lehengoari deituko zaio, gehienez bi aldiz, kontratazioarekin ados dagoen ala ez adieraz dezan. Adostasunik adieraziko ez balu, hurrengoari deituko zaio baten batek kontrataziorako adostasuna adierazi arte.
- b) Zerbitzuak une bakoitzean ezarri beharreko araudiari jarraituz hitzartuko dira, eta bakar-bakarrik erabiliko dira baldin eta behin-behinean langile gehiago behar badira, aldi baterako ordezkapenak edo Udal Euskaltegiako irakasleek bete ezin dituzten behin-behineko lanak egin behar direlako.



- c) Eskaintza indarrean egongo da egoera hori eragin zuen arrazoiak bere horretan dirauen bitartean, eta bertan behera geratuko da azken egoera hori desagertzen denean.
- d) Baldin eta hautagai batek zerbitzuaren eskaintza onartzen ez badu, ez du zerrendako bere postua galduko, behar bezala justifikatuz gero. Baina ez zaio berriro deituko hautagaiak berak lan egiteko moduan dagoela adierazi arte.
- e) Santurtziko Udala Euskaltzagian lanean dabilen hautagaia lan poltsa honetan geldialdi-egoeran egongo da aipatutako zerbitzua emateari utzi arte

### **Bederatzigarrena.- Datu pertsonalak babestea.**

Eskaera aurkeztean hautagaiak baimen ematen du eskaera-orrian jasotako datuak (izen-abizenak eta Nortasun Agiriaren zenbakia) lagatzeko IVAPek edo beste erakunde eskumendun batek Euskara edo beste hizkuntza batean duen ezagutza-maila egiazta dezan.

Datuak lagatzeko baimena eman ezean, betiere aurreko paragrafoan adierazitako eduki eta helburuetarako, hautagaiak GELDIALDI beren-beregi adierazi beharko du eskaera-orrian, eta Euskara edo beste hizkuntza batean duen maila egiaztatu beharko du garaiz eta modu egokian.

Era berean, eskaera orria aurkeztean hautagaiak baimen ematen du bertan jasotako datuak lagatzeko, bai eta orokorrean epaimahaiak berak, edo honek agindutako erakunde edo enpresak, probak prestatu eta egikaritu ditzan beharrezkoak diren datuak ere.

Publizitatearen printzipioak arautzen ditu hautaketa-prozesuak, eta beraz, ez da eskabidea onartuko baldin eta hautagaiak ez badu bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako lagatzeko baimenik ematen.

Hautaketa-prozesuetatik sortzen diren Lan Poltsak egite aldera, eskaera-orria aurkeztean hautagaiak baimen ematen du bere datuak (izen-abizenak, prestakuntza eta harremanetarako bidea) beste herri-administrazio batzuei lagatzeko. Horrela, enplegu-eskaintzak jaso ahal izango ditu, legeak datu batzuei dagokienean (izen-abizenak, NAN, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza maila) aurreikusten duen terminoetan lagata.

Hautagaiak datuok lagatzeko baimenik eman nahi ez badu (aurreko paragrafoan adierazitako eduki eta xedeetarako), beren-beregi adierazi beharko du eskaera-orrian.



Datu Pertsonalen Babeserako indarrean dauden Lege eta Araudi aplikagarriei jarraituz, SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIAN ematen diguzun informazioa tratatzen dugula erakundeak egindako langile aukeraketa-prozesuen berri emateko eta zure datuak gordetzen ditugula lan-profila gure beharretarako baliagarria den artean. Datuok jasoak izan diren helburuarentzat soilik beharrezko edota legezko diren bitartean gordeko dira eta legeak derrigortzen dituen epeetan. Datu pertsonalen tratamendua egin ezean, ezin izango litzateke Lan-poltsa zerbitzua eskaini, zeinean alderdi interesduna zaren.

Eskubidea duzu SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIAN zure datu pertsonalak tratatzen ari garen egiaztatzeko, hortaz, zure datuak eskuratzeko, aldatzeko, mugatzeko, ezabatzeko edo haien aurka egiteko eskubidea duzu. Eskubide horiek baliatzeko SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIRA jo beharko duzu Joxemiel Barandiaran, 12 -48980- SANTURTZI, BIZKAIA.

Datuen Babesari buruzko informazio osagarria eta zehatza gure webgunean kontsultatu dezakezu: <https://www.santurtzieus.com/pribatutasun-politika/>